

# Noaqua!!!

H A M A B O S K A R I A


2001eko martxoaren 23a VI.urtea

Usurbil, 109. zenbakia



**25 urte herritik  
kanpora**

SETABU TAILERRAK, S.M.  
ERREMENTARITZA-GALDARAGINTZA



- ✕ SOLDADURA
- ✕ BURDINEZKO ATEAK
- ✕ BURDIN SAREAK
- ✕ PLANOTIK EGINDAKO  
PIEZAK

**Eskatu aurrekontua  
konpromezurik gabe**

Ugarte industrialdea, 7 Pabiloia  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

TELF: 943 36 08 48  
FAXA: 943 37 24 67

**M** MANPEL, S.A.

- Bulegoetako materiala
- Liburudendetako  
artikuloak


**Fraxton**  **Unipapel**

Ugaldea industrialdea, 19. pabiloia  
20170 USURBIL

Telf.: 943 36 58 92 - Fax: 943 37 16 86



**TXIMINIA  
ALTZARIAK**



**ALTZARIAK AUKERAN**

**1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak**

**Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta  
lastaira-azpikoen aukera haundia**

**Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak**

**Ehundaka altzairu %50ean**

**Mailatu txikiekin eta gabekoak**

**Osinalde poligonoa**

**Tel.: 943 37 09 66**



# Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Maddil** Martxoaren 23an etxeko txikiak bi urte beteko ditu. Muxu haundi bat eta zorionak etxekoan partez.



Zorionak **aitona Miguel** Martxoaren 23an urteak betetzen dituzunez muxu haundi bat etxekoan partetik, eta batez ere Ainhoa, Jon eta Andoni zure hiru hiloben partetik.



Zorionak **Manuel** Martxoaren 13an zure urtebetetze eguna izan zenez ondo pasako zenuelakoan gaude. Muxu haundi bat zure familiaren partez.

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarri jarri beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: apirilaren 6an  
Ekartzeko azken eguna: martxoaren 31a

## Apirila

Astel. Astear. Asteaz. Osteg. Ostira. Larun. Igand.

					1		
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
30							

Noaua aldikaria!  
Bordaberri 3  
Usurbil

Kexaren bat baduzu, kritikaren bat eskuarte badabilkizu edo eta herriko zerbaitez hitz egin nahi baduzu guk ikarimikan toki bat egingo dizugu.

Eskutitzak izengoitit batekin sinatu daitezke, baina *Noaua*n argitara

emateko guk zuen izen-abizenak jakitea ezinbestekoa da. Testuak 2000 karaktere baino gutxiago izan beharko ditu.

Eskutitz horiek Noaua! Kultur Elkartearen egoitzara eraman edo postaz bidali besterik ez duzue egin behar.

## Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.30	07.55	08.15	06.45	07.05	07.30
07.40	08.05	08.25	07.15	07.35	08.00
08.00	08.25	08.35**	07.45	08.05	08.30
08.30	08.55	09.15	07.45	08.05	08.30
08.40	09.05	09.25	08.15	08.35	09.00
09.00	09.30	09.40*	08.45	09.05	09.30
09.30	09.55	10.15	08.45	09.05	09.30
09.40	10.05	10.25	09.20**	09.30	10.00
10.30	10.55	11.15	09.45	10.05	10.30
10.40	11.05	11.25	09.45	10.05	10.30
11.30	11.55	12.15	10.20*	10.30	11.00
11.40	12.05	12.25	10.45	11.05	11.30
12.00	12.25	12.35**	10.45	11.05	11.30
12.30	12.55	13.15	11.45	12.05	12.30
12.40	13.05	13.25	11.45	12.05	12.30
13.00	13.30	13.40*	12.45	13.05	13.30
13.30	13.55	14.15	12.45	13.05	13.30
13.40	14.05	14.25	13.20**	13.30	13.55
14.00	14.30	14.40**	13.45	14.05	14.30
14.30	14.55	15.15	13.45	14.05	14.30
14.40	15.05	15.25	14.20*	14.30	14.55
15.00	15.25	15.40**	14.45	15.05	15.30
15.30	15.55	16.15	14.45	15.05	15.30
15.40	16.05	16.25	15.20**	15.30	15.55
16.30	16.55	17.15	15.45	16.05	16.30
16.40	17.05	17.25	15.45	16.05	16.30
17.30	17.55	18.15	16.20*	16.30	16.55
17.40	18.05	18.25	16.45	17.05	16.55
18.00	18.30	18.40*	16.45	17.05	18.30
18.30	18.55	19.15	17.45	18.05	18.30
18.40	19.05	19.25	17.45	18.05	18.30
19.00	19.25	19.35**	18.45	19.05	19.30
19.30	19.55	20.15	18.45	19.05	19.30
19.40	20.05	20.25	19.20*	19.30	19.55
20.00	20.30	20.40*	19.45	20.05	20.30
20.30	20.55	21.15	19.45	20.05	20.30
21.00	21.25	21.45	20.45	21.05	21.30
21.30	21.55	22.15	21.15	21.25	21.55
22.15	22.45	23.05	21.45	22.05	22.30
22.30	22.55	23.15	23.15	23.25	23.35
00.00	00.25	00.45	00.15	00.25	00.35
01.00	01.25	02.45	01.15	01.25	01.35
02.00	02.25	02.45	02.15	02.25	02.35
03.00	03.25	03.45	04.15	04.25	04.35
04.00	04.25	04.45	05.15	05.25	05.35
05.00	05.25	05.45			
06.00	06.25	06.45			

\*Oriaraino \*\*Alaraino

■ Asteburutan

\*Oriotik

\*\*Alatik

■ Asteburutan

## Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47	06.03	06.20	06.08	06.24	06.39
06.17	06.33	06.50	06.38	06.54	07.09
06.47	07.03	07.20	07.08	07.24	07.39
07.17	07.33	07.50	07.38	07.54	08.09
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17	08.33	08.50	08.38	08.54	09.09
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.47	10.03	10.20	10.08	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.20	12.08	12.24	12.39
11.47	12.03	12.20	12.38	12.54	13.09
12.17	12.33	12.50	13.08	13.24	13.39
12.47	13.03	13.20	13.38	13.54	14.09
13.17	13.33	13.50	14.08	14.24	14.39
13.47	14.03	14.20	14.38	14.54	15.09
14.17	14.33	14.50	15.08	15.24	15.39
14.47	15.03	15.20	15.38	15.54	16.09
15.17	15.33	15.50	16.08	16.24	16.39
15.47	16.03	16.20	16.38	16.54	17.09
16.17	16.33	16.50	17.08	17.24	17.39
16.47	17.03	17.20	17.38	17.54	18.09
17.17	17.33	17.50	18.08	18.24	18.39
17.47	18.03	18.20	18.38	18.54	19.09
18.17	18.33	18.50	19.08	19.24	19.39
18.47	19.03	19.20	19.38	19.54	20.09
19.17	19.33	19.50	20.08	20.24	20.39
19.47	20.03	20.20	20.38	20.54	21.09
20.17	20.33	20.50	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.08	22.24	22.39
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	21.09

## ai, esan?

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak 37 01 48
- Anbulategia 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Udarregi (Kalezar) 36 45 00
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiarde kiroldegia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Erzantza 112
- Suhiltzaileak 112
- Larrialdiak 112
- Anbulantziak 112
- Posta Kutxa
- Gure Pakea 37 32 28
- Gure Elkartea 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua aldikaria 36 03 21
- Bake epaitegia 37 23 36
- Oa farmazia 36 12 17
- Iturralde farmazia 36 33 95
- Zubietako Herri Batzarra 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) 47 09 76

## Zer irizten?

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkarte  
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Tif. eta faxa: 943 36 03 21  
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net  
Web orria:  
<http://www.topagunea.jalgi.com/noaua/>

**Kazetarien koordinatzailea**

Josu Aranberri

**Kazetariak**

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta

**Publizitatea**

Agurtzane Solaberrieta

**Zuzentzailea**

Eneko Harreguy

**Kolaboratzaileak**

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieto, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

**Administrazioa**

Arantxa Usarralde, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

**Erredakzio Kontseilua:**

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Gari-koitz Udabe, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta.

**Maketazioa eta diseinua**

Olatz Goenaga, Zaloa Arnaiz eta Ibon Beristain.

**Dokumentazioa**

Idola Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

**Informatika**

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

**Banaketa**

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

**Elektrikaria**

Iñaki Salsamendi

**Tirada:** 2.600 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818

**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

**Azala:**

**Xabier Migel Ezkerrari  
elkarrizketa egin genionean  
ateratako argazkia**

**2001. urteko zerga egutegia**

Zergadun guztiei aldian aldiko nahiz batera jakinarazitako zergak honako borondatezko ordain epeak izango dituzte 2001. urtean:

- O.H.Z. (Ondasun Higiezin Zerga) kontribuzioa, landa eta hiri izaerakoak maiatzaren 15etik ekainaren 30 arte.

- E.J.Z. (Ekonomi Jarduera Zerga) urriaren 1etik azaroaren 10era bitartean.

- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zerga apirila eta maiatzan. (martxoan foru arauak izan dituen tarifa aldaketan ondorioz, zergadun bakoitzak ordaindu beharreko kopuruak jakinaraziko dira).

- Espaloia zeharkatuz ibilgailuak sartzea (badoa) urrian.

- Ura, estolderia eta zaborra hiruhilabetero.

\* Lehenengo hiruhilabetea ekaina-uztaila.

\* Bigarren hiruhilabetea iraila-urria.

\* Hirugarren hiruhilabetea azaroa-abendua.

\* Laugarren hiruhilabetea 2002 urteko otsaila-martxo.

Epemuga laneguna ez bada, ondorengo lehen lanegunera pasako da borondatezko epearen azken eguna.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak Hirilurren Katastroko ondasunen katastro balioak eguneratzeko ponentzia berriak onartu dira 2001. urtean. Ponentzia berrien arabera eguneratutako katastro balio berriak 2002. urtean indarrean sartuko direnez, 2001. urteko irailaren 1etik abenduaren 31 bitartean Ogasun Foralak herri-tarrei balio katastral berriak jakinaraziko dizkie. Guzti hau dela eta, 2001. urteko kontribuzioen diru bilketa, irailetik azarora bitartean egiten zena, maiatzaren 15etik ekainaren 30era bitartean egingo da.

**Udaleko Kontuhartzailea****Euskaltegitik Elorriora**

Txapeldun izan edo ez izan, Fernando Goñi bat euskaltegian ikusteak errespetua eta animoa sortarazten du askotxorengan. Oraingo eta aspaldiko euskaldun berriok ederki sentitzen gara horrelakoen aurrean. Herri bateko kidea dela sentitzea, besteek norberak baino gehiago dakitela onartzea, zerbait ikaste-ko pronto agertzea, bitartean erdi-ezindurik agertzea... ez dira kontu errazak. Horrelaxe frogatzen du jende askok euskaraz ikasi nahi ez izateak. Arras pozgarria, beraz, Zubiriko txapeldunari hitz batzuk euskaraz aditzea.

Beste muturrean, pantailan seizortzi aldiz agertu zen bizkaitar enpresa baten iragarki erdarazko hutsa: "Te vas a quedar sin vacaciones?" Sin vacaciones, ez dakit. Sin Eroski si, seguru asko: enpresa erdaldun batzuk bera baino merkeagoak dira-eta. Hemengoak izan edo ez izan, bost axola, horren erdaltzalea bada. Horiek ere ederki sentitzen dira bere hizkuntzan. Hemengo erdaltzaleen kutxa betetzea alferrikakoa izango dela erakutsi digute aspaldi honetan Eroskikoek, bertako hizkuntza gutxien darabilten lurraldea hauxe baita.

**Edorta Agirre**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

# Euskal Herriko Gazte Asanbladen I. topaketa apirilaren 7an Usurbilen

**H**erriko Gazte Asanbladako kideak dira inoiz Euskal Herrian egin ez den topaketa honen aintzindariak. Inguruko herrietako Gazte Asanbladekin gazte mugimendu honen inguruan zerbait egiteko asmoarekin hasi ziren, baina ahoz aho, gaztez gazte, egitasmo hau txoko guztietara zabaldu ostean, Euskal Herriko Gazte Asanbladen I. topaketa bihurtu da hasierako egitasmo hura.

Inguruko herrietako Gazte Asanbladekin harremanetan

jarri eta eskualdeko topaketa antzeko bat egitea zen herriko Gazte Asanbladaren hasierako asmoa. Beste herrietako Gazte Asanbladek ideia honen berri izan zuten, eta guztien artean Euskal Herriko Gazte Asanbladen I. topaketa egingo da Usurbilen apirilaren 7an.

Egun hau antolatzeko 12-15 Gazte Asanbladatako kideak bildu izan badira ere, egun horretan herri gehiagotako gazteak etorriko direla uste du Usurbilgo Gazte Asanbladako kide batek.

*"Jendea animatuta dagoela entzun dugu. Bileretara denak ez dira etorri, baina egitasmo honek harrera ona izan du Euskal Herri osoan".*

Egitaraua, berriz, hauxe izango da:

10.00etan topaketari ongi etorria trikitilari, txalapartari eta zanpantzarrekin.

10.30etan Euskal Herriko gaztetxe eta Gazte Asanbladen arteko batzarra.

13.30etan bazkaria. Bazkariaren ondoren Pepi eta Gabiren kontzertu akustikoa.

17.00etan azoka alternatiboen irekiera; gazte asanbladen materiala, maketak, CD-ak, bigarren eskuko arropak, pegatinak...

17.01ean taldeen arteko herri probak.

17.02an gaztetxeen inguruko bideo emanaldiak.

17.30etan trikiti-bertso-poteo herrikoa.

21.00etan kontzertua: Odio, Arriskua, Kaotiko, Ki Sap (Valentziako Ska talde bat) eta Asgarth. Sarrera: 500 pzt.



## RAMON BARCENILLA

- . Pikor- pintura eta gotele lanak
- . Papereztatze-lanak
- . Pintura-lanak oro har

Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL  
MOBILA: 629 46 09 66



## HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater konbinatuak, pintxo beroak...

Tel. 943 36 02 17

*Euskal presoak etxera!*



SERIGRAFIA  
TAnPOGRAFIA

# 10su

Ugaldea poligonoa 36 - 2º Esk  
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54

INDUSTRI ETa  
IRAGARKI SERIGRAFIA  
KAMISETEN INPRIMAKETA

## BORDATXO EDARITEGIA

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42



**Igandetan ganba-ziri mundialak!**

**JUANTXO**  
burdindegia  
kale nagusia 10 Usurbil  
37 00 08



# TXOKOALDE

Imanol Goenaga



## Gure gaztetxea interneten

**H**emen gara berriz ere Akerako kideak, artikulua idazteko prest.

Hasteko gure web orriaren eguneratzearen berri eman behar dugu. Gogoan izan "[www.geocities.com/akerra-gaztetxea](http://www.geocities.com/akerra-gaztetxea)" helbidean aurkituko duzuela. Bertan azaltzen dira gure hurrengo kontzertuen datak eta aurrekoei buruzko komentarioak. Azkena martxoaren 3an izan zen "Talbot" eta "Pok" taldeekin eta nahikoa jende bildu ginen azkeneko. Eskerrik asko etorri zirenei eta gainontzekoei gonbidapen bat datozenetarako.

Hurrengoa martxoaren azken asteburuan izango da. "Tono Punk" eta "Los Esbirros Beben

Birra" taldeekin. Apirilaren hasieran ere beste bat izango delakoan gaude, oraindik baieztatzeko dagoen arren.

Bestalde, gure auzo kuttun honi dagokionean, denboraz eta hego hai-zeaz gain, beste gauzarik izaten da. Duela aste pare bat Usurbilgo Lan Brigadakoak eskabadora batez baliatuz Akerra gaztetxea eta Errota baserriaren artean dau-den lurrak mugitu eta

hodiren batzuk sartzen aritu ziren, eta orain dena zuloz beteta dago. Esan beharra dago, nahiz eta lehenago ere esanda egon, auzoko zubia gero eta okerrago dagoela, batez ere bertako zorua.



# KALEBERRI

Iñaki Agirresarobe



## Berriro ere badator Korrika

**B**i urtetik behin ospatzen den AEKren aldeko jai erraldoia berriro ere atarian dugu. Martxoaren 29an Gasteizen hasi eta apirilaren 8an Baionan bukatuko da.

Herritik apirilaren 2an, astelehena, goizeko 6etan igaroko da gutxi gora behera, Oriotik etorrita. Lanera joan aurretik eta astea fresko-fresko hasteko

parada ezinhobea. Dena den, hau dena igarotzeko nolabaiteko kultur aste xume bat antolatu du Korrikako Batzordeak. Esan behar oso jende gutxi bildu dela antolatze lanetarako, baina bildu garenon artean zerbait xumea antolatzen saiatu gara; azoka, diapositiba emanaldia, kantaldi txiki bat, Korrika Txikia...

Bestalde, kilometro bat leku-koarekin egin nahi duen edozein elkartek Etumeta Euskaltegira deitu besterik ez du, 943-372001 telefonora, hain zuzen ere.

Jaiekin jarraituz, Santixabelak antolatzeke ere hainbat bilera egin direla esan beharra dago. Urtero legez, betiko jendea bildu da bertan. Urtetik urtera jende berria ez da animatzen, baina gero zerbait gaizki ateratzen bada kritika ugari izaten dira. Guztiontzako jaiak antolatu nahi badira Jai Batzordera azaltzea ezinbestekoa da, alde aurretik konpon baitaiteke gero konponezina dena.



# KALEZAR

Ainara Uribe



## Usurbil dugu aurrez

**N**orberak bere auzoaz txukun eta ongi hitz egitea ohikoa izaten da. Kalezartarrok, ordea, badugu horretarako arrazoirik. Azken hilabetetant, gainera, benetan polita dago ingurune hau guztia, bide berria eta guzti. Ibiltariak benetan eskertu dute errepide berria, izan ere, eguraldi ona lagun, paseo ederra emateko parada eskaintzen baitie bide berriak.

Kanpotarrek ere azkar nabari dute gure auzo honen edertasuna, horren adibide argia etxe berrietara bizitzera gerturatu direnena. Izan ere, pribilegio handia da balkoira irten eta Usurbil guztia aurrez aurre

topatzea. Honen jakitun gustura hurbildu dira Kalezar aldera bizilagun berriak, ireki berri diren etxeetara.

Urdaiagako abestiaren letrak baliagarriak zaizkigu gure auzoan ere, *Usurbil dezu aurrez*. Agian sortuko du auzotarren batek Kalezarko abestia, artistarik eta idazlerik, behintzat, ez zaigu falta.

Ingurunearen edertasuna eta gune berriaren izena, ordea, ez datoz bat. Bateko edertasunak



besteko gustu txarrarekin egin du topo bete-betean. Bestela nola ulertu Sakabanatuak izena?

# ATXEGALDE

Maria Jesus Urbieta



## Garizuma

**D**agoeneko aurrera doa urtea, konturatzera garizuma garaian sartu gara eta hemen dugu bete-betean. Aste Santua datorrela eta, somatzen hasiak gara eskaintza bereziak nonahitik, egun libreak direla eta, jendea bate-tik bestera mugitzen baita; bidaiak egin, bazterrak ezagutu, eguzkia hartu edo elurretara joan... bada hamaika aukera.

Izan ere, azken 40 urteotan aldaketa izugarria ikusi dugu, gure aurrekoak esnatuko baira! Gure gazte garaian dena dolu bihurtzen zen Aste Santuan, ez zegoen dantzaldirik, zinemarik edo antzekorik.

Guztia eliz giroan izaten zen,



ostiraletan bijillia eta baraua, Ostegun Santu eta Ostiral Santuan jaunari lagun egitera joaten ginen txandan eta horrela izaten zen gure Aste Santua bizitzeko modua.

Orain dena aldatu da, baina, hala ere, esan behar dut dena

ez dela galdu eta elizako koru aldetik gabiltzanak gustura joaten garela lehengo abesti eta kantu batzuei antzak kendu eta Aste Santurako prestakuntzak egitera. Doinu hauei berezitasunen bat eman nahirik ahal den neurrian gaurko giroari egokituz.

# SANTUENEA

Alfonso Vidal



## Dagokionak entzuteko moduko kexak

**B**eti bezala kexekin nator. Kexa hauek aspaldikoak diren arren, auzotarrek behin eta berriz eskatu didate *Noaia*n idazteko eta ni hauen guztien ordezkaria naiz.

Batetik kotxeen aparkalekuak daude. Marrak gero eta gutxiago ikusten diraenez, hauek txukundu eta gero hasiko da jendea kotxea ongi aparkatzen eta ez espaloi gainean. Halaxe pentsatzen dute, behinik behin, auzotar batzuek.

Bestetik, dagoeneko udaberrian gaude eta eguraldi onak



lagunduta, gero eta jende gehiago gerturatzen da kalera, parkeetara hobe esanda.

Santuenean, ordea, bueltatxo hori arriskutsua izaten da. Parkea eskubaloi zelaiaren

atzealdean dago eta umeak, eta ez hain umeak, parkean jolas-ten aritzen direnez, ohikoa da baloiren bat edo beste parke aldera botatzea. Bertan egoten diren haur txikiengiztat hau nahikoa arriskutsua izaten da, haundiagoen ostikada batek kalte handia egin baitiezaieke txikienei.

Hau ikusita benetan beharrezkoa litzateke parkea eta eskubaloi zelaiaren artean sare bat jartzea, guztien onerako. Espero dugu dagokionak eskaerari kasu egin eta lehenbailehen sarea jartzea.

# URDAIAGA

Joseba Zubeldia



## Ermitaren zainketa

**O**rain dela egun batzuk urte askotan San Estebango ermita garbi eta txukun



zaintzen aritutako Kandelari joan zitzaigun eta horren berri Alaznek eman zuen txoko

honetan bertan.

Baina ermitak hor jarraitzen du eta orain arte bezala mantentzeko gainean egoitea eta zaintzea beharrezkoa da. Lurra garbitu, hautsak kendu, loreak zaindu... bada zereginik.

Arrazoi hau dela eta, erreto-reak bilera bat deitu zuen joan den otsailaren 27an. Bertara zortzi edo bederatzi emakume azaldu zen zeregin horietan guztietan laguntzeko gogoz. Horrela, bertaraturiko guztiak akordio batera iritsi ziren eta bakoitzari egun jakina eman zitzaion ermita garbitzeko, txandaka-txandaka.

Beraz, Kandelari joan den arren emakume talde honek borondate ona azaldu du eta aurrerantzean ere, ermita garbi eta txukun mantenduko dela-koan gaude. Benetan esker-tzekoa askoren borondatea.



# AGINAGA

Oskar Santamaira



## Adinagako anguleroen Udaletxea

**J**oan den alean Maria Angelesek ederki azaldu zuen modura, Orio aldera erribera garbitu eta txukun-txukun jartzen dihardute. Badirudi Gipuzkoako Foru Aldundiak lagunduta daudela lan hauek eta dirudienez, laster batean landatuko dituzte aurrekusi modura makalak bertan. Lehen sastrakaz eta sasiz josiriko lurrek futbol zelaia dirudite orain.

Honez gain, herrian izan da komentariarik azken asteotan. Izan ere, Mapil-Zahar baserria bota dute. Aginagako anguleroen Udaletxe bezala ezagutua izan da baserri hau, histori-

koa, beraz, aipatu baserria Aginagan.

Dirudienez bertako semeak etxe berria eraikiko du bertan.

Etxe berriak aipatu ditudanez, dagoeneko etorri zaizkigu bizilagun berriak Aginagara, errepide ondoko protekzio ofizialeko etxebizitzetara, hain zuzen ere. Nagusiki jende gaztea etorri da, aginagarrak gehienak. Benetan datu pozgarria bertakoentzat, hala, herri-

giroa biziagoa izateaz gain, laister hasiko baitira haurrak plazan gora eta behera. Pixkaterako, behintzat, Aginaga ez da itzalduko. Ea aurrekoan Maria Angelesek komentatzen zituen biztanleria datuak hobetzen dituzten bizilagun berriak. Hala bedi.



# ZUBIETA

Olatz de Migel



## Bere txikitasunean bizia

**A**skotan iruditu izan zait, Zubieta, bere txikitasuneko nahiko leku bizia dela. Bestela ikusi besterik ez dago arratsalde partean bertatik bueltatxoren bat emanez gero, eskola txikian haurrak beren jolasetan murgildurik, alai, irribarreak udaberri hasiberriko usainekin nahastuz. Bestaldean, helduxeagoak beren azken ikasketak egiten, kurtsoa noiz bukatuko zain; bizitza arduratuko da gainontzekoa irakasteaz.

Bidean zehar, kotxeez gain, bada bere eguneroko bueltaxoa egiten duen hirukote hori, beti kontu berriren batekin, edota bizikletan nahiz korrika izerdi patsetan baina hain gus-tura dabilen beste hori. Han

urrutian, berriz, zelaiaren beste aldean, traktore soinua, eguneroko beharrei erantzunez baserritarra lanean.

Gaua iristerako, aldiz, haurra bere etxean da, gogokoen duen hain modako marrazki bizidun hori ikusten. Gaztea hor ariko da azken etxeko-lanei amaiera eman nahiean, liburuarekin borroka bizian. Hirukotea, txirindularia zein baserritarra bueltatu dira dagoeneko etxera, bukatu dute eta bere egitekoa; biharkoa beste egun bat izango da, gaurkoa joan da.

Gauak Zubietan bere mantua zabaltzerakoan iluntasuna nagusitzen da herriaz, eta isilta-

suna zabaldu etxe bazter bakoitzean. Hau honela bada orain, nolakoa izango ote zen duela 70 edo 100 urte?

Zaharrek jakingo dute ongi asko... apenas argirik gauez, apenas ikaslerik, hirukoterik hizketan edota baserritarrak lanean. Orduan ere izango zen modernitateak ekarritako asmakizun horien soinurik; kottxearena beharrean bertatik igarotzen zen trenarena.

Orduan ere gauak bere mantua zabalduko zuen Zubietan eta iluntasun zein isiltasuna nagusitu herriaz. Agian, gauzak azken finean ez dira aldatu uste bezainbeste gure Zubieta honetan.

## Aginagako frontoia egiteko falta ziren lurak erosi ditu udalak

**D**enbora asko pasa da Aginagako frontoia egitea erabaki zenetik. Hala ere, udal ordezkarien esanetan urte honen bukaerarako lanak hasiteko moduan izango dira. Oinarrizko proiektua egina dago, eta exekutiboa bukatze ar dutenez udalak plaza ondo lurren jabearekin lur hauek erosteko hitzarmen bat sinatu du.

Orain Aginagan plaza eta lehengo eskola txikiaren eraikuntza dauden tokian frontoia egingo dutela gauza jakina da. Frontoia eraikitzean plaza txikia geldituko zela eta, udalak honen ondoan dagoen lursaila plaza haunditzeko erabiltzea erabaki zuen. Normen aldaketa etorri zen lehendabizi, baina lurjabea honekin ados ez zegoenez elegitea sartu zuen. Epaitegiak, ordea, normen aldaketaren aldeko epaia eman zuen. Orduetik urte batzuk pasa badira ere, udalak frontoiaren proiektua

ia bukatuta egon arte itxaron du lur horiek erosteko.

Herriko ordezkariak esan digutenez lursail hori erosterakoan ez dute arazorik izan, expropiazioaren bidea hartu aurretik akordio batetara iritsi baitira. Duela bizpahiru hilabete hasi ziren negoziaketak eta otsailera udalbatzan akordioari onepena eman ondoren hitzarmena sinatu da lurjabearekin.

Lur hauek erosi ondoren Aginagako frontoia erakitzen hasiteko ez da asko falta. Oinarrizko proiektua egina dago eta proiektu exekutiboa, berriz, laster amaituko dutela uste dute herriko ordezkariak. Proiektu hau behin betirako onartu ondoren, kreditu aldaketetan frontoi hori eraikitzekeko dirua bideratu eta eraikuntza lanak nork egingo dituen erabakitzekeo lehiaketa egin beharko da. Urte bukaerarako, behintzat, lanean hasiak izango direla uste dute.



## Bat-batean

### Paris etxearen atzeko parkearen izena

Paris etxe atzean egiten ari diren parkeko lanak amaitze ar dira. Udalak eta eraikuntza enpresak sinatu zuten hitzarmenaren arabera ekainerako bukatuta egon behar du parkeak, eta begiratu batera asko ez zaiela falta dirudi. Bolatokia, merkatua egiteko leku estalia eta haurrentzako jolastokia dituen parkeak, ordea, izen baten beharra du. Horretarako, herriko ordezkariak herritarren laguntza eskatu dute. Izenen proposamenak udaleko idazkaritzan utzi ditzazkeuzue.

### Pintore ikastaroa

Hastapen tailerren barruan pintore ikastaroa egin ahal izateko izen emateko epea zabalik dago dagoeneko. Ikastaro hau lanbide honetan prestakuntzarik ez dutenei edo prestakuntza eskasa dutenei zuzendua dago, eta lanbidearekin motibaturik dauden edozein adinetako emakumezkoek edo gizonezkoek parte hartu dezakete. 600 orduko ikastaroa izango da eta Aginagako pintura tailerlean burutuko dira astelehenetik ostiralera 8.30etatik 13.30etara apirilaren 2an hasi eta urriaren 29a bitartean. Izena udalean eman dezakezue martxoaren 28a baino lehen.

*Zinkildegia*

Lentzeria,  
gizonezkoentzat arropa,  
haurren jantziak,  
etxerako behar dituzunak

Aritzeta 1 behea,  
20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87

TABERNA-JATETXEA



**ANTXETA**

EGUZKITZA, 4  
20.170 USURBIL

TEL: 943 37 03 44

Kale Nagusia, 10  
USURBIL  
Tlf. 943 37 33 40  
943 37 09 13

LABE-GOXO  
LANTZAGARIAK

## EAJ-PNVk Noaua!-n argitaratutako idatziari erantzuna

**P**NVk oposizioa egitea normala da, agintean ez dagoen taldearen zeregina da hori. Bestalde oposizioa egoitea ona da herriarentzat. Batzutan, gai baten aurrean itsuturik egon gaitzke, baina talde baten oposizio txukuna izanez gero, erabakiak zuzenduko lirake.

Bestalde, agintean dagoen taldeak heldutasun politikoaz jokatzeko ardura du: erabakiak hartu aurretik besteei entzun beharra, eta hori da Usurbilgo EH taldearen jokaera. Baina ekarpenak egin behar dituen taldeak lana egin beharra dauka, baita herritarrekin harremanak izan, herri mugimenduetan lan egin... ere. Horrela, soilik, egin daiteke aportazio txukun eta eraikitzailea.

Legealdi hau ere aurrera doa, eta orain arte PNVk ez du ezer egin. Batzorde informatzaileetara eta udalbatzara azaltzea izan da beraien lana. Astean 2 ordu gutxi gora behera. Hauteskundeetan uzta jasotzeko orain nolabait erein beharra dute, baina horretarako egian oinarrituriko lan zintzoa egin beharra dago.

Gezurretan eta ezjakintasunean oinarrituriko idatzia kaleratu zen duela gutxi *Noaua!* aldizkariaren ale batean. Lan gutxi eginaren ezjakintasuna; EPAko irakaslearen euskara maila; Eusko Jaurlaritzaren baitan dagoena. Beraien gezurrak banan-banan argudiatzeko gaitasuna baldin badaukagu ere, ez gara joku horretan eroriko, baina azalpen bakarra egingo dugu, euskara arloan ez omen dugu ezer egiten...

PNVri buruz hurbileko historian errebaso bat egiten badugu:



- Lehen Egunkari Eguna antolatu genuenean ez genuen PNV ikusi, ez antolaketan ez eta lanean ere. Izan ere, Euskaldunon Egunkariaren sorreran, herri proiektuak aurrea hartu zion PNren proiektu instituzionalari.

- Euskal Herrian Euskaraz taldeak, 1997an, mozio gisa "*Euskaldunontzat ez dago justiziarik*" lelopean udalaren babesa eskatu zutenean PNVren aurkako jarrera ere gogoan daukagu.

- 1997ko ekainaren 15ean Usurbil UEMAn sartzeko egin zen udalbatzara ez zen PNVko ordezkariarik azaldu.

- "*Osasun zentruetan zerbitzua euskaraz izateko eskubidea bermatu beharra*" lelopean UEMAn mozioaren aurrean PNV abstenitu egin zen 1998ko apirilean.

- 2000ko urtarrilaren 25eko udalbatzan Euskal Herrian Euskaraz taldeak mozio bat sartu zuen, zeinetan euskal irakaskuntzaren eta euskaraz ikasteko eskubidearen aldeko aldarrikapena egiten zen.

Usurbilgo PNVk aurka bozkatu zuen.

- UEMAn estatutuetan aldaketak egin direnean (2000ko azaroa), PNV, "*UEMA ez zegoelako*" abstenitu egin zen.

- 2000ko amaiera inguruan Usurbilgo udalaren funtzionamendua euskalduntzeko "*euskararen premiazko neurrien*" aurrean abstenitu egin ziren.

- Datozen bi urtetarako udalaren Euskeraren Erabilera Plangintza egin da, eta udaletxean hiru aurkezpen egin badira ere, PNVko ordezkariarik ez da bertaratu tamalez. Beraien jarrera zein izango den ez dakigu, baina laster argitu beharko dute.

- Esandakoa gutxi bagenu, PNV kideek gobernatzan dituzten hainbat erakundetan ez dago euskararen aldeko jarrera argirik. Hobe lukete euskararen defendatzaile sutsu horiek beren etxera barnebegiradaxoa egingo balute...

**Usurbilgo EH.**

**P A T R I**

**J A T E T X E A**

**Eguneko bazkariak eta afariak**

Nagusia 6, 20170 Usurbil  
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)



# MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen modako arropa guztia hemen aurkituko duzu

*Udaberriko moda berria zuretzat!*

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06



ARRAINDEGIA  
**PELLO**



Arizeta Kalea, 1  
Tlf 36 21 64  
USURBIL





# Xabier Miguel: “Bi etsai haundiren artean gauden arkakusoak gara”

**X**abier Miguel Ezkerrak bere borondatearen aurka herria utzi behar izan zuen duela 25 urte. Egun euskal hiritar orok Euskal Herrian bizitzeko eskubidea aldarrikatuz, Ipar Euskal Herrian bizi da, baina inongo ofizialtasunik gabe. Martxoaren 24an bisitari ugari izango ditu Xabierrek, elkarrekin bapozan eta edan asmoz haruntz joango baitira herritarrak. Hala ere, *berarekin* hitzordua jarri eta giro ederrean elkarrizketa hau egin genion Ipar Euskal Herrian.



## Egiguzu 25 urte hautako hausnar-keta txiki bat.

Ni bezala beste jende mordo batek bizi izan duen bizitzako beste atal bat litzateke. Gozo-mikatzak uztartuz balantzea ez da oso ona. Nik 21 urterekin alde egin nuen, baina 25 urte beranduago 20, 21, 22 urterekin jendeak etortzen jarraitzen du. Hala ere, 25 urte hauek ez dira alferrikakoak izan. Orain dela 25 urte ez genekien konkretuki Euskal Herria nazio bezala nola atera behar genuen aurrera, gaur egun badakigu. Bi estatuek hitz egiten dutenean “hauek badoaz” esaten dute, baina bi etsai haundi ditugu aurrean. Gu arkakusoak gara bi San Bernardo haundiren artean eta belarritik isatsera eta isatsetik belarri-errotu arte ibiltzea da gelditzen zaigun aukera bakarra. Herri honek badu inoren zain egon gabe aurrera egiteko borondatea. Dagoen guztia borrokatu delako lortu da eta hemendik aurrera berdin borrokatu beharko da hori bururaino eramanean dhal izateko.

## Zeintzuk izan dira 25 urte hauetako unerik onenak? eta txarrenak?

Bizitza bera bezala biak uztartuta eraman izan ditut. Inor ezagutu gabe, bakarrik, 1000 kilometrora asigatuta egoteak baditu bere alde mikatzak, baina horretaz baliatzen zara azkenean jendearekin harremanetan jartzeko, egoteko, elkartasun mota bat antolatzeke... eta horrek bere alde goxoak ditu.

Orain inongo nortasunik gabe nago, edozein momentutan atxilotu nazakete, baina kili-kolo egote horrek bizitza beste era batera ikusteko aukera ematen du. Azkenean barnekaldera joatea eta mendi txiki bat egitea beste era batera gozatzeko dut. Noski, egoera oso gogorra da 21 urterekin exiliatu beharra izatea, espetxean egotea, kide bat hiltzea eta zenbait garaietan eraso haundia datorrela ikusten denean Euskal Herrian gizarteko atal haundi bat kokiltzen ikustea. Hala ere, kokiltzen diren horiek erreakzionatzen dutela ikustea ere goxoa da.

## Zein egoeratan zaude orain?

Ez daukat inongo nortasunik, ez baitidate ematen, eta ezin dut nagoen tokian egon. Hala ere, azkenengo boladan intsumisioa praktikan jartzen hasi gara. Euskal Nortasun Agiria eskatua dugu eta horrekin ibiliko gara Ipar Euskal Herrian. Gure egoera ez da sekula aldatuko gatazka hau konpontzen ez den bitartean. Nik lana egiten dut, beltzean noski. Gu konturatu gabe, behartuta, administrazioaz “paso” egiten dugu. Presioak eta mehatxuak izan ditugu, jendea espetxean sartu dute, filtrazio interesatuak izan dira... baina dena alferrik.

**Azken hilabeteetan eraso ugari izan dira euskarako hainbat sektore nahiz ezker abertzalearen aurka. Zer dela eta eraso hauek?**

Gaur egun Espainia nazio bezala

eraikitzea da beren helburua, baina hori ez da egiten estatu bat edukitzearekin bakarrik, nazio mentalitatea berpiztu beharra dago. Hori egiteko PPK, ultranazionalista denez, Espainiaren historia osoa pixkanaka-pixkanaka legitimatu behar duela ikusi du. Beraiek ikusten duten nazio birtual horretan beren nazioa aldarrikatzen duten lurraldeak badaude, ezin dute nazio bat eraiki. Euskara bada euskaldun egiten gaituena, espainolak ezin dute euskara inolaz ere babestu. Hori estrategi markatu bat da. Horretarako autoritarismo mota bat sartu beharko dute, eta sartuko dute. Estrategia hori orain dela hiru urte planteatuta zuten: autonomiak pixka bat mugatu, ikasketatik euskara kendu... Beraien nazionalismoa berpiztu dhal izateko PP Euskal Herria nazio gisa deusezterera doa.

## Nafarroan horretan hasi direla dirudi.

Zer espero dugu Euskal Herria herri gisa bereizten gaituen edozein atal espainiar estatuak onartzea ala? Hori desegitera datoz! Batzuk ez badira konturatu zer egin behar dugu? Nafarroa ja ez da laborategi bat, Nafarroa martxan dagoen prozesu bat da. Euskal Herrian ere hasi dira eta Mayor Oreja lehendakari izan arte ez gaitzen zain egon. Herri honek bere barnetik bere indar, gogo, ilusio haundienak ez ditu atera Madrilek edo Parisek uztitakoan, itotzera etortzean baizik. Espainiatik eman diguten Euskal

Herri birtual hau mantendu behar al dugu? Estatutu honekin jarraitu behar al dugu aurrera beste 20 urtetan? Espainolek ez digute utziko, estrategia bat baitute. Duela 20 urte zera pentsatu zuten: estatutu bat emango diegu; ezker abertzalea itota egongo da; zuk PNV lagundu behar diguzu horretan eta gero ikusiko dugu, Espainian eroso sentitu eta aurrera. Baina ez dute lortu, eta orain beste fase batekin datoz.

**Nola erantzun behar zaie eraso hauei? Bitarteko egokia al da ezker abertzaleak deitu duen greba orokorra?**

Zer gertatu behar da Euskal Herrian euskal herritarrek kalera ateratzeko? Negarrez atera behar al dugu izugarriko manifestazioa egitera? Horretaraino iritsi behar al dugu? Greba egitea al da bidea? Ez dakit, baina zerbaitegin dezatela. Greba euskal gizarteak eman dezakeen erantzun bat da, baina niretzat erantzunik egokiena, inolaz ere ezin baitute kontrolatu, eraikuntza nazionalako bidetik jarraitzea da. Erantzun hori iritsiko da, baina batzuk BBKtik Sabin etxera doan karretila hori kendu baino lehen konturatuko ote dira, eta ez itota ikusten direnean. Su etena eman zenean, hasieran, Euskal Herria euforikoki atera zen kalera, baina gero uste zuen espiritu santua etorriko zela gauzak konpontzera. Ondoren patata usteltzen hasi zen eta patata usteltzean ez dago patatarik.

**Zergatik usteldu zen ba patata hori?**

Nahiz eta sinatu zituenak sinatu eta esandakoak esan, nire ustez PNV borroka armatuarekin bukatzeko sartu zen Lizarra-Garazin. Borroka armatua geldituta eta ezker abertzalea instituzioetako gestioan sartuta dena bukatuta zegoela uste zuen. Denborarekin jokatzeko zuten, bost urteren ondoren ezin baita berriz borroka armatuarekin hasi. Hasiera batean euskal gizartean sortu zen ilusioak PNV bera gaingitu egin zuen eta berak nahi zuen baino aurrerago joan zen. Hauteskunde batzuk zeuden tartean eta ezker abertzalea indartu eta beraien nagusitasuna galtzen zutelatik zuten zuten. Lehenengo aldiz gestio-

an alderdi espainolisten babesa galdua zuen eta beraien aurka hasi ziren gainera. Hori PNVk eza gutzen ez duen egoera bat da, oposizioan egoten ez baitaki.

**Hauteskundeak gerturazten ari dira hegoaldean.**

Hauteskundeekin egoera ez da ezertan aldatuko. Gaur egun ez dut alderdi abertzaleak akordio batera iristeko aukerarik ikusten. Espainolistak, ezker abertzalea abstenituta, bien artean gehien-goia baldin badira autonomiaren gestioa hartuko dute, hori bai PNV eta EA gaur egun dauden moduan baldin badaude. Azkenengo momentuan beldurdu eta lehen hasitako bidea berrartu behar dutela esaten badute, ez da bost egunetan egingo, baina badakite zein den bidea. Badago "hau da nire herria" esaten duen gehien-go abertzale bat; gehien-goia gara herri hori bere osotasunean aurrera eramateko. Ez da erraza izango, egunerakotasunean borroka instituzionala, fiskala etab. egongo da, baina hori da bide bakarra.

**Eta Mayor Oreja lehendakari jarriko balitz?**

Euskal Herriak Franco bezain desinfektatzaile haundiagorik ez du eduki eta ez dugu Mayor Orejaren beldurrik izan behar. Euskal Herria politikoki frankismoan berpiztu zela ez dugu ahaztu behar. Orain egiten dituzten gauzak ikusita zer gehiago egingo dute?



## Bere hitzetan

**X Garzon epailea:**

*"Ministro izatera iritsi ez den mitomano arriskutsu bat".*

**X Mayor Oreja:**

*"Nazionalismo espainolak Euskal Herrian duen estratejiarik bortitzena".*

**X Xabier Arzalluz:**

*"Mitxelinak hartzen ari den jeltzalea".*

**X Juan Jose Ibarretxe:**

*"Etsaietaz trenpatzen den gizon bat".*

**X Jon Idigoras:**

*"Euskal Herriak azkenengo urteetan izan duen borrokatzailearik sutuena eta argienetako bat".*

**X Patxi Zabaleta:**

*"Idigorasekin maizago hitz egin beharko luke".*

**X Arnaldo Otegi:**

*"Ezker abertzaleak duen buruzagi oso argia, eta arrakasta duenez etsaiak ere bere geziak beregana zuzentzen ditu".*

**X Joxe Martin Sagardia:**

*"Sarritan faltan botatzen dudana lagun bat".*

**X Joxe Antonio Altuna:**

*"Usurbildarrek arrazoiez maite duten alkatea".*

**X Michelle Alliot Marie (Donibane Garaziko alkatesa):**

*"Mayorrekin batera Euskal Herriaren etsai sutu eta amorratu bat".*

**X Komunikabideak:**

*"Zeintzuk beligeranteak ala komunikabideak?".*

**X Haimar Zubeldia:**

*"Parisera joateko asmoa nuen han ikusteko, baina ez dakit... izorratuta dago eta".*

## Angolako Cacenga auzoko zentrurako 2.118.166 pezeta bildu dira

**H**iru urte pasa dira Pausoz Pauso parroko eta Ziortzako taldea lanean hasi zirenetik. Lehenengo urteetan informazioa biltzeko lanetan aritu ginen, baina ondoren hegoaldeko herrien bizimoduaren berri ematea, Usurbilgo misiolarien nondik norakoak eza-gutzea eta sentsibilizazio mailan lan egitea izan dira gure helburu nagusiak.

Helburu hauek kontuan hartuta, eta informazio bilketa egin ondoren, proiektu batekin lanean hasteko ideia sortu zitzaigun. Izan ere, gogoeta hauekin genbiltzala Angolako Cacenga auzotik iritsi zitzaigun lehen proiektua. Bertako lanbide heziketako zentrurako dirulaguntza lortzea zen proiektu honen funtsa. Zentru honetan lanean ari zen **Ixabel Pagola** usurbildarra eta zentruko langileei soldatak ordaindu ahal izateko 2.046.000 pezeta lortzea ezinbestekoa zen.

Taldean ondo aztertu ondoren, aurrera jarraitzea eta horretarako lanean hastea erabaki genuen. 2000ko maiatzaren 11ean izan zen proiektuaren aurkezpena, eta orduetik hona ekintza ugari



egin dira: hitzaldiak, afari solidarioak, produktuen salmentak, egutegien salmentak etab.

Egindako lanaren emaitza oso positiboa izan da. Proiektu honi amaiera eman nahian pasa den martxoaren 3an izan genuen azken afari solidarioa eta bertan 64 pertsona bildu ginen. Afari honetako ekarpena jaso ondoren, diru kontuak aztertu eta 2.118.166 pezeta bildu direla ohartu gara. Ez al da pozgarria guztion artean ekarpen hau egin izana Angolako auzo xume eta txiro batean egoera latzean bizi direnei laguntzeko? Ziur beraiek bihotz bihotzez eskertuko dutela.

Honek gure lana amaitu denik ez du esan nahi. Beste proiektu batekin lanean hasteko asmoarekin gabiltza, baina oraindik zehaztu gabe daukagu. Hala ere, gogoratu, norbaitek dirulaguntza eman nahi badu kontu zenbakiak irekita jarraitzen dutela:

**Kutxa:** 2101 0069 14 0123045478

**Labor.:** 3035 0140 31 1401022596

Amaitzeko gure eskerrik beroenak gurekin egon zareten guztioi Usurbilgo parrokoa, Ziortza eta Pausoz Pauso taldearen partez, zuen laguntzarik gabe ez baitzen proiektu hau aurrera aterako.

**Pausoz Pauso taldea**

## Emakume langilearen eguna ospatuz

**U**surbilan ere emakume langilearen eguna ospatu zen martxoaren 8an. Udala, tabernarien elkarteak, *Noaua!* Kultur Elkarteak eta herriko zenbait emakumek antolatuta zenbait ekitaldi burutu ziren egun horretan. "Emakumea eta literatura" gaitzat hartuta **Yolanda Arrieta** idazlearekin solasaldia izan zen arratsalde partean. Ondoren, Patri tabernan afaldu eta Labrit abeslariaren abestiak entzuteko aukera izan zen. Hala ere, afariak ez zuen arrakasta haundirik izan, 16 emakume besterik ez baitziren azaldu. Bestalde, martxoaren 8tik 11ra bitartean **Zaloe Arnaiz**, **Nerea Zinkunegi**, **Amaia Kasasola**, **Susana Martin** eta **Maite Agirresaroberen** artelanak ikusgai izan ziren Udarregi zaharreko erakusketa aretoan.





## Zumarte musika eskolako kontzertuak

**U**daberriari ongietorria emateko urtero bezala Zumarte Musika Eskolak kontzertuak eskainiko ditu han eta hemen. Hasteko, aurten Elgoibarko "Inazio Bereziartua" musika eskolarekin egingo den elkartrukaketaren berri eman behar dugu. Izan ere, Zumarteko eskusoinu taldea, orkestra eta abesbatzak kontzertua eskaini zuten pasa den martxoaren 21ean Elgoibarko Herriko Antzokian.

Martxoaren 30ean, berriz, elgoibartarrak etorriko dira Usurbila, arratsaldeko 19.30etatik aurrera Inazio Bereziartua musika eskolako "Hari taldea",

"Akordeoi taldea" eta "Dixeland Band" taldeak entzuteko aukera izango baita Udarregi ikastolako areto nagusian.

Bestalde, Catalina de Erauso I.P.k antolatzen duen musika hamabostaldiaren barruan, Zumarte abesbatzak kontzertu bat eskainiko du. Kontzertu hau martxoaren 29an izango da arratsaldeko 18.30etan Donostiako Peñaflores Institutoko ekintzen aretoan hain zuzen ere.

Beraz, musika mota eta talde ezberdinak entzunez urtaro berri honi hasiera emateko aukera badago!



**M**artxoaren 12an Amaia Goiararan PSE-EEko zinegotziaren aurkako pintadak azaldu ziren. "Goiaran faxista, faxistak kanpora" leloa irakurri zitekeen herriko horma askotan ezezagunek egin zituzten pintadetan. Lasarten bizi den zinegotzi honek ia bi urte daramatza udalean, eta pasa den urteko urtarrilaren 29an Lasarteko Buenos Aires auzoan duen etxea kokotelez erasotu zuten bera eta bere senideak barruan zeuden bitartean.



**P**asa den martxoaren 5ean izan zen urteko bigarren odol emanaldia. Bertan 58 usurbildarrek eman zuten odola eta guztira 23, 2 litro odol bildu ziren. Aurten odol emailen kopurua mantentzen ari bada ere, elkarteko kideek inoiz odola eman ez duten horiek animatu nahi ditu, emanaldi honetan ez baita odol emaille berririk izan. Beraz, lehen aldiz odola eman nahi duzuenok maiatzaren 7an izango duzue hurrengo aukera.

**gorriti**  
EDARITEGIA  
kafe berezia

San Esteban kalea, 8  
TLF 36 27 70

20170  
USURBIL



**Kima**  
MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea  
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

## Usurbil Futbol Taldearen ezohiko batzarra izango da martxoaren 24an

**U**surbil Futbol Taldeak ezohiko batzarra egingo du martxoaren 24an arratsaldeko 19.30etan Oiardo kiroldagian. Taldearen egungo egoera aztertzea eta zuzendaritza batzordearen aldaketa izango dira gai nagusiak. Bazkideak nahiz herrian futbola zuzpertz nahi duten guztiak gonbidatuta daude bilerara honetara.

Duela zortzi urte inguru Usurbil F. T. ia desagertzeaz egon zen. Denboraldi batean Arane futbol zelaian ez genuen futbolik izan, ez baitzen talde bakar bat ere aurrera atera. Zuzendaritza berria sartu eta pixkanaka-pixkanaka zuzpertz joan zen, eta azken urteetan maila ezberdinetako lau talde izan ditu. Errejonial mailako taldeak bigarren mailatik lehenengora igotzea lortu zuen eta jubenil mailakoak ere bai.

Hala ere, aurtengo denboraldian erabat aldatu dira

gauzak. Lau talde izatetik talde bakarra izatera pasa da Usurbil F.T. eta egungo zuzendaritzako kideek beren karguak uzteko asmoa azaldu zuten denboraldi hasieran.

Guzti honi buelta eman eta taldea zuzpertz hasi nahian ezohiko batzarra egingo da martxoaren 24an. Taldearen egungo egoera aztertzea eta zuzendaritza kideen aldaketa izango dira bilerara honetako gai nagusiak. Zuzendaritzaren ar-

dura hartzeko prest agertu da herritarrez osatutako talde bat, baina bilerara honetara azaltzen diren bazkide nahiz herritarrek onartu edo erabaki beharko dute zuzendaritzako kide berriak nortzuk izango diren.

Horregatik, arratsaldeko 19.30etan Oiardo kiroldagian egingo den bilerara agertzeko eskatu nahi die Usurbil Futbol Taldeak bere bazkideei eta futbola zuzpertz nahi duten herritarrei.



## Haimar Zubeldia ukalondoa eta lepauztaia hautsi zituen Murtziako itzulian

**H**aimar Zubeldiak ez du zorte handirik izan aurtengo denboraldi hasieran. Murtziako laugarren etapan erori eta ukalondoa eta lepauztaia hautsi baitzuten. Pasa den martxoaren 13an egin zioten ebakuntza eta gutxienez hilabete egon beharko du karrerarik korritu gabe.

Aurten inoiz baino ilusio haundiarekin zegoen Haimar. Iaz Euskal Bizikletan garaile izan eta Dauphine Liberen bigarren postua eskuratu ondoren Frantziako Tourrean parte hartzeko itxaropenarekin

ekin zion denboraldiari. Prestaketa honetan, ordea, ezusteko bat izan zuen pasa den martxoaren 10ean. Murtziako itzulian erori eta hautsitako ukalondoa eta lepauztaia sendatzeko ebakuntza egin zioten martxoaren 13an. Medikuek berriro karrerak korritzen hasteko hiru hilabeteko epea jarri zioten, baina usurbildarraren igarpenen arabera Aragoiko itzulian (apirilak 18) itzultzeko prest egon daiteke. Izan ere, ebakuntzaren ondoren itxaropentsu eta bizikleta hartzeko gogoarekin azaldu zen Urdaigako txirrindularia.





## Pelota

Usurbilen bizi den **Martin Alustiza** pelotariak ezin izan du binakako txapelketa eskuratu. Pasa den martxoaren 11n jokatu zen finalean Ruben Beloki kide hartuta 22-13 galdu zuten Asier Olai-zola eta Fernando Goñiren aurka. Martinen esanetan "polita eta gogorra" izan zen finala eta porrota ahazteko onena berriro partiduak jokatzeko hastea izango dela aitortu zuen. Berak esan zuen bezala "bihar ere argituko du eguna".



## Eskubaloia

Gipuzkoako txapelketa jokatzeko jubenil eta kadete mailako taldeek hirugarren eta bigarren postuak lortu dituzte. Kadeteek lehen postua eskuratzeko aukera izan zuten, baina Elgoibarko taldearekin etxean galdu eta hauek izan dira Gipuzkoako txapelketa. Jubenilek, berriz, bigarrenarekin berdinduta bukatu dute txapelketa. Azkenik, nesken taldea lau taldeko multzoan hirugarren postuan dago bost partidu jokatu ondoren.



## Emaitzak

### Futbola neskak

Martxoak 17-18

Usurbil F.T **2** - Vasconia **0**

### Eskubaloia

Martxoak 10-11

Usurbil K.E. **20** - Aloña Mendi **27** (2.N.)

Usurbil K.E. **21** - Egia **20** (ju.m)

Bera Bera **21** - Usurbil K.E. **8** (ju.n)

Usurbil K.E. **10** - Elgoibar **19** (k.m)

Martxoak 17-18

Ereintza **27** - Usurbil K.E. **24** (2.N.)

### Futbol aretoa

Martxoak 10-11

Pello Arraind. **12** - Ayete **1**

Antxeta **8** - Tecnun B **6**

Txotx **5** - Gorren **1**

Aitzaga **1** - Intxurre **2** (Ju.n)

Martxoak 17-18

Converters **16** - Pello Arraind. **3**


Martu Kirol - **12** Antxeta **6**

### Hondartzako futbola

Martxoak 10-11

Aginaga Sag. **1** - Area 7 Sistemas **2**

Zure publizitatea  
hemen jarri  
nahi baduzu,  
deitu  
**943 36 03 21**  
telefonora!

Iturgintza - Gasa - Berokuntza  
 **J. Orbegozo**

Bizkarra 1, 1.esk.

 37 29 37 - 36 59 26



**XABIER**  
**EDARITEGIA**

**Etor zaitez,  
eta dasta itzazu  
Goierriko produktuak**

- × Idiazabal gazta
- × Beasaingo odolkiak...

Kontseju zarra, 13  943 36 04 66

Zendoia enea  
  
**Taberna**

- ✓ Pintxoak
- ✓ Eguneko menuak
- ✓ Bokatak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Razioak, .

Kale Nagusia, 35 Telf; 943 36 25 60



**Usurbil Autoak, S. C. L.**  
**Zerbitzu ofiziala**

Zumartegi Poligonoa  
Aitzearra kalea, 1  
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79  
Faxa: 943 36 62 92



## Korrika 12 “Mundu bat euskara bildu” leloarekin iritsiko da Usurbila apirilaren 2an

**K**ORRIKA 12 apirilaren 2an, astelehenean, goizeko 5.30ak aldera iritsiko da Usurbila. Azken edizioetan asteburuetan iritsi izan bada ere, aurtengoan astelehenearekin jeiki beharko dute KORRIKA 12an pauso batzuk eman nahi dituzten guztiak. Hala ere, ez da hor amaituko edizio honetako jarduna, apirilaren 6a bitartean hainbat ekitaldi burutuko baitira.

“Mundu bat euskara bildu” horixe da martxoaren 29an Gasteizen hasi eta apirilaren 8an Baionan amaituko den Korrikaren 12. edizioaren leloa. XXI. mendearen atarian gauden honetan, munduaren globalizazioaz hainbeste hitz egin eta idazten den garai honetan, berebiziko garrantzia du munduan diren hizkuntzen eta kulturen iraupenak.

Globalizazioaren bidez uniformizazioa saldu nahi digutenen aurrean, hizkuntza eta kultura gutxituen aldeko apustua egin nahi du Korrikak. ez gara kolore bakarraren aldeko, paisaia koloretsua dugu gogoko. Globalizazioak aukera eman behar du kultura bakoitza isolatuta egon beharrean, kultura guztiak elkarri eraginez bizitzeko, norgehiagoka baino, elkarren ondoan, elkarren parean izateko. Kultura eta hizkuntzen uniformizazioa dakarren globalizazioari aurre egin nahi dio Korrikak.

Aurtengo Korrikak euskara eta euskal kulturaren iraupenak duen garrantzia azpimarratu nahi du, mundu bat euskarara bildu nahi du korrika. Euskara munduko herritar guztion ondarea da eta aberastasun horri elkarrekin eutsi behar diogu; geureari eutsiz eta geurearen alde bilduz.



Horrek herritarron ahalegina eskatzen du; euskal kulturak zabaltzen duen munduaz jabetzea, euskal kulturaren murgiltzea.

Halaber, milurteko berriak erronka jo digu, eta aurrera egingo badugu, euskara normalizatua beharrezkoa dugu, euskaldunok ere bagarelako munduan. Horretarako, ezinbestekoa da azpimarratzea euskararen parekotasuna eta balioa gainerako hizkuntzekiko, euskaldunon hizkuntz eskubideak bermatzea eta euskararen lurralde osoan eta arlo guztietan behar duen tokia aldarrikatzea, hots ofizialtasuna.

### Apirilaren 2an goizeko 5.30etan iritsiko da Usurbila

Gasteiztik Baionara bidean, Usurbilgo bideetan barrena lekutxo bat egin beharko zaio apirilaren 2an Korrikaren 12. edizioari. Goizeko 5.30ak aldera Orio aldetik iritsiko da Usurbila eta aurtengoan ibilbide berezia izango du. 11 kilometroko ibilbidea egingo du herri-

ko lurretan, Aginagan hasi eta hipodromoko zubian bukatu.

Tarte horretan Korrikak inoiz pasa ez dituen bideak erabiliko dira, izan ere Aginaga pasa ondoren Txokoalderako bidea hartu eta hemendik, erriberako bidetik barrena, Santueneara joango da lekukoaren gidaritzapean. Santueneatik kaxkorako bidea hartuko du, herri barruan ibili eta Kalezarko bide beritik gora joanez Troia pasa eta Txikierdira iristeko. Hemen zubietarrek hartuko dute lekukoa eta plazara igo ondoren hipodromoko zubian bukatuko da KORRIKA 12ren herriko ibilbidea.

Korrika 12a herritik pasa ondoren, ordea, hainbat ekitaldi burutuko dira, Etumeta euskaltegiak egindako deia erantzunez zenbait herriko taldeetako ordezkariak aste kulturala antolatu baitute apirilaren 1etik 5era bitartean. Eskulangintza azoka, koadrilen arteko jokuak, diapositiba emanaldia, ipuin kontalaria, kantautorea... denetarik izango da herrian aste horretan.

**Josu Aranberri**

## Biztanle gehiago, baina ume gutxiago

**B**iztanleriari dagokionez, Usurbilek 1987. urtean jo zuen goia. 5584 biztanle izatera iritsi zen urte hartan, baina gero, pixkanaka pixkanaka kopuru horrek behera egin zuen. Azken urteetan, ordea, populazioak gora egin du. 2001eko urtarrilaren 1eko datuen arabera 5.319 biztanle ditu Usurbilek, iaz baino sei biztanle gehiago.

Ez da asko, baina bada zer-bait. 1996. urtean azken hamarkadako biztanle kopururik txikienera iritsi zen Usurbil, 5.265 biztanle izatera hain zuzen ere. Orduetik hona gorantz joan da herriko biztanleria: 1998an 5.282, 1999an 5.303, 2000an 5.313 eta 2001eko urtarrilaren 1ean 5319.

Hala ere, Euskal Herri osoan bezala, ugaltze tasarena da arazorik haundiena. Azken hogeitau urteetan ugaltze tasa asko jeitsi da Usurbilen eta arratsaldetan frontoi ingurutik pasatzen garenean bestelakorik pen-

tsatzen badugu ere gero eta ume gutxiago jaiotzen da herrian. 70. hamarkadan batazbeste 95 haur jaiotzen ziren urtean, 80. hamarkadan 60 eta 90. hamarkadan 47. 1999an, adibidez, azken urteetako jaiotza kopururik haundiena izan zen, 60 haur jaiotze bakoitzaren herrian. Iaz, berriz, 51 jaiotze bakoitzaren.

Jaiotza tasa txikiari aurre egiteko plan bat martxan jarriko du Eusko Jaurlaritzak apirilaren 1ean. Umeak izateko diru laguntza zuzenak jasoko dituzte gurasoek bigarren umetik aurrera; desgrabazio fiskalak lehen umetik aurrera; haurtzaindegia zerbitzua; lan uzteak eta murrizketak hartzeko diru laguntzak bai enpresari eta baita langileentzat ere. Izan ere, Euskal Autonomi Erkidegoan Europako jaiotze tasarik txikienetakoa dago: 0,8 ume emakume bakoitzeko.

Bestalde, munduko biztanleria zaharretakoa da Euskal Herrikoa.



## Motzean

### Maritxu Gozategiren pintura erakusketa



Udaberria iristearekin batera Aginagako Mapill baserriko **Maritxu Gozategi** bere margolanak ikusgai jarriko ditu Udarregi zaharreko aretoan martxoaren 25etik apirilaren 1a bitartean Mihixe Pintura Eskolako udalaren laguntzaz antolatutako erakusketan.

Edozer egiteko balio duela diote. Mapillgo abeletxean langile nekezina, auzoekin batera urtean zehar Aginagan antolatzen diren ikastaro eta ekintzak antolatu eta ikastaro horietan parte hartzen du. Berak dioen bezala, "ikasteko bada...".


Gizarte jarduerara alde batera uzten ez duen emakume langilea, etxeko andrea, ama... eta gainera margolaria. Duela zortzi urte hasi zen marrazkia eta pintura ikasten, eta baita ikasi ere. "Hamabost urterekin Parisen Bellas Artes ikasi nahi izan balu gaur egun Orida Calhok Maritxuren antza izango luke. Berak, ordea, abeletxean lan egin eta Patxirekin Orian behera angulak harrapatzerara joatea nahiago izan zuen. Duela zortzi urtetik Maritxu eta bere patuak margotu nahi dute eta... Patxi ere gustora dago".

## LATAILLADE

ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA  
INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA  
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48  
Mobila: 609 888021



## Urtinea

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban  
Tlf.: 943 36 22 55



Unai Zubiaur



❑ 27 urte

❑ Psikologoa

## HAUTESKUNDEETAN HERRIAREN HITZA

**H**uteskunde garaiak datoz. Huteskunde garaian gaude luzaro, eta egongo gara hegoaldean Maiazaren 13a arte iraungo duen kalbarioan. Hortantxe gelditzen bada, gaitzerdi! izan ere, duela urte gutxirarte hutesleago sinbolikoa baino ez zuen alderdia birkonkista asmotan baitatorkigu.

Iparraldean pasa da huteskundee-tako lehen itzulia, eta nahiko emaitza onak izan ditu abertzalegoak portzentaita zerbait igoaz, eta aberrizaleontzat garai latzak bizi ditugun honetan, gustora hartu beharko genuke, ugaltzea, zabaltzea eta gehitzea den guzia, nahiz eta era berean iparraldeko egoeraren errealitateak gure hausnakerarako joera, aberrizale gisa, areagotu beharko lukeen. Izan ere, beste inon ez eta, abarizaleon begietan bakarrik ikus daitekeen Euskal Herriaren iparraldeko zatian, asko jota %10 bakarrik ageri zaigu aberrizale. Datu honek, gaindiezina, ezabaezina egiten du, praktikan bizirik eta tinko dirauen iparralde eta hegoaldearen arteko muga. Beste hainbeste esan dezakegu Nafarroaz. Izan ere batzutan ametsa baizik ez dirudien Euskal Herri aske batean biziko bagara, euskaldun guziok hala aukeratu dugulako izango baita. Beste zerbait izango bagara ere herriak hala aukeratu izango duelako izango da, batzuek nahi ez izan edo argi ez izan arren. Bi hankadun bakoitzak testuinguru batean, testuinguru sozial horrekiko eta balizko lurralde batekiko mantendu beharreko lotura moeta aukeratzeko duen askatasuna; aukera. Subiranotasuna omen. Lurralde hauetan bi hankadun askok, gustoko ez dugun aukera egingo luketela ikusteko, bertara joan eta jendearekin hitz egitea baino ez daukagu, estatistikek arrazoi pixka bat badutela ikusteko.

Aberrizale guziek subiranotasunaz ari garenean oso kontutan izan beharreko datua dute hau. Beraz ume asko egiteaz gain, pazientzia ere beharko dugu, aurretik soroa ondo prestatu eta ereiteaz ahaztu gabe. Bestela pentsatzeko tentazioa izango bagenu, nafar nola iparraldekoen subirautez ari garenean, hainbeste aldarrikatzen dugun autode-terminazioaren printzipioaren beraren aurka ariko ginatke. Izan ere, herriaren hitza esaten dugunean, herriaren hitza eta erabakiaz ari garenean, bere hortan eta osotasunean hartu behar baitugu kontutan, eta ez aldebateko zein besteko interesen arabera.

Alderdi politikoek egunero darabilte ahotan herriaren hitza. Denek hitzegiten dute herriaren izenean eta denek herriaren hitzaren defentsan. Badirudi beraz, herriaren hitza errespetatzearen printzipioa erabat onartua dutela, nahiz eta esan bezala gero egiaren zati bat ezkutatu edo norbere interesen arabera interpreta daitekeen. Baina egia dena baita ere, ez direla eta ez datoze-la garai onak euskarazale eta aberrizaleontzat. Duela bi urte itsaropenez beterik geunden, gauzak aldatzera zihoazela zirudien eta benetan sinesten genuen zerbait inportantea gertatuko zela. Bi urteren buruan zuhaitza lurrean da. Nork moztua ordea? Hor dago koxka. Aurrera begiratu beharra dago, baina iragana ahaztu ahal izateko, berau ulertu eta onartu egin beharra dago. Bestela hor gelditzen da betirako, ahaztua dirudien arren, loturik, hurrena puntu berera iristean irrist egin eta ipurdikoa hartzeko. Eta nori egiten dio mesede? Aurrera begira galdera batzu egiten dizkiot neure buruari, erantzun bat bilatu asmotan.

-Zer dio herriak ETaren ekintzez?

-Zer, euskal presoek eskubideez?

-Zer, espainiar nazionalismo eta indar polizialen errepresioaz?

-Zer, marko berri bateranzko jauziak, herriak aukeratua baldin bada?

-Zer, pertsona guziek bakean bizi eta askatasunez aukeratzeko eskubideaz?

Galdera guzti hauek erantzun garbiak dituzte, hauek izanik euskal gizartearen aldarrikapen nagusiak. Herriak hala nahi ditu, beraz bateragarriak behar dute izan, baldintzetako batek ere ezin duelarik egon beste batekiko baldintzatu. Herriaren borondatea, beti da lejitimoa (gutxiengoa izanik ere), baina gainera, etikoki ere minimoetaz ari gara, eta gizartearen gehiengo garbiak eskatzen ditu. Dударik ez dut aldarrikapen guzti hauen bateragarritasunaz. Izan liteke aberrizaleon habiapuntu bateratu baten adibide?

Baiezkoan nago, eta gainera uste dut, soilik horrela aitaren etxeak iraungo duela zutik, bestela agian zutik iraungo du, baina Sarrik dion bezala gu gabe.

Aldarrikapen hauek guztiak onartzekotan soilik esan dezake inork herriaren alde ari dela. Erabakia zuri dagokizu irakurle...



## Lehiaketa



### Zer dago faltan, zer soberan?

Asmatzaileen artean  
Bordatxo tabernan bi  
personentzat afaria  
zozketatuko dugu

Aurreko argazkia

Erantzuna



#### Irabazlea

Endika Larrañaga  
Matxain

#### Saria

Antxetan tabernan  
bi lagunentzat afaria

## Esanak esan

- "Aizu Joxe, oker ari zara; ez da horrela".

- "Bai, Edurne, baina berdin **du**". \*

Berdin **du** hori, berdin dio, zaio, da.

"Berdin izan" aditz-lokuzioarekin perpaus inpersonal hutsak (subjeto gabeak) askotxotan egin ohi ditugu; horrelakoetan, ordea, **IZAN** aditza erabili behar da; ez ukan.

Horretara, gaztelaniazko "**es lo mismo, da igual**" eta antzekoetan, euskaraz berdin **da**

esan behar da; ez berdin **du**.

Aintzinako tradizioari erreparatzen badiogu, ordea, aditz-lokuzio honek **NOR NORI** eta **NOR NORI NORK** adizkerak ere onartu egiten ditu; hortaz: "**berdin dio**" eta "**berdin zaio**" adizkerak kasaiki erabili ditzakegu. Lasai baino lasaiago esango nuke nik. Hiru hauetatik erabileran zaharren zaharrena "**berdin dio**" baitugu.

Besterik gabe, agur eta ondo-ondo izan.

## LITERATURAREN TXOKOA

### Nongoa da J.M. Olaizola ?

J. M. Olaizola "Txiliku" idazlea Zarautzen jaio zen 1951. urtean. Ingeniari teknikoa da ikasketaz, eskolako materialen egilea ogibidez eta jakintza modu guztien biltzailea zaletasunez. Obra zabala du haur eta gazteentzako literaturan.

#### Irabazlea:

**Alex Udabe Pagola**

## MARTXOAK 24 igandea

- Zubietako Herri-Batzarrak deitutako **herri-bilera**.

## MARTXOAK 25 astelehena

- **Euskal prozesu demokratikoaren aldeko konzentrazioa**. BORDATXO aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan.

## MARTXOAK 30 ostirala

- **Senideaken enkartelada** arratsaldeko 20.00etan frontoitik abiatuta.
- **Euskal preso politikoaren aldeko barrikotea** Aitzaga elkartearen 21.30etan. Izena emateko epea: martxoaren 29a.

## MARTXOAK 31 larunbata

- **Noaia! Kultur elkartearen Batzar Orokorra** udaletxeko pleno aretoan goizeko 10.00etatik aurrera.

## OHARRAK

- ✍ **Neska bat behar da etxekolanak egin eta haurrak zaintzeko.** Deitu 943 37 29 38 telefonora (gauetz).
- ✍ **Rossignol markako snow board tabla salgai.** 152 zm-koa. Fijazioekin. 30.000 pzta. Telf. 943 36 51 80
- ✍ **Emakume batek** astelehenetik ostiralera ordu pare batez **lan egingo luke.** Deitu 943 36 16 71 telefonora.
- ✍ **Neska eskaintzen da orduka etxeko lanak egiteko.** Astebete goizez eta hurrengo arratsaldez. Telf. 679258721.
- ✍ **Mahaspildegi elkartearen bazkide postua** salduko nuke. Telf. 943 365231.
- ✍ **Chow chow arrazako txakurrak salgai.** Pedigriarekin. Harremanetarako deitu 943 362072 telefonora.

## KORRIKA 12 ASTE KULTURALA

- ☐ Apirilak 1, igandea:
  - Goizean eskulangintza azoka.
  - Arratsaldean koadriren arteko jokoak.
- ☐ Apirilak 2, astelehena:
  - Goizean goiz esna-deia trikitilariekin.
  - 5.30etan Korrika 12
  - Ondoren txokolotada.
- ☐ Apirilak 3, asteartea:
  - Andatza K.K.E.ren irteeretako diapositiben emanaldia.
- ☐ Apirilak 4, asteazkena:
  - Ipuin kontalaria
- ☐ Apirilak 5, osteguna:
  - Kantautore baten emanaldia taberna batean.
- ☐ Apirilak 6, ostirala:
  - Salsa gaua

## Udajolas Aste Santuan

Aste Santuko oporretan umeez ondo pasatzeko aukera. Apirilaren 9tik 11ra eta 17tik 20ra.

Apuntatzeko azken eguna: apirilaren 3a.

Telefonoa: 943 37 29 64 (gauetz deitu)

## U.G.A.ren areto futbol II. txapelketa

- Izena emateko orriak: Aitzagan, Irratin, Sagastin, Zendoia-enean eta kiroldegian.
- Bi multzo: 14 urtez gorakoak (5000 pezeta taldeko). 14 urtez beherakoak (2000 pezeta taldeko).
- Talde bakoitzean 6-10 jokalaririk.
- Partiduak frontoian.
- Izena emateko epea: apirilaren 1a.



## TXIRIBOGA TABERNA

pintxoak, bokatak  
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

## TXURRUT

## TABERNA



Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalca, 1  
Tel: 943 36 00 80



txeko berri

## Noaia! Kultur Elkarteko 2001eko Batzar Orokorra martxoaren 31an izango da



### GAI ZERREDA:

- 1.- 2000ko memoria eta balantzea
- 2.- 2001ko egitasmoa: lantalde bakoitzaren proposamena eta onarpena.
- 3.- Diru kontuak: 2000ko balantzea eta 2001eko aurrekontuaren proposamena eta onarpena.

- 4.- Zuzendaritza Batzordearen osaketaren proposamena eta onarpena.
- 5.- Galdera/ erantzunak
- 6.- Hamaietakoia

\* Lehenengo deialdia 10.00etan, bigarrena 10.30etan.

### **Orain bazkide egiten bazara bazkideen onura guztiak jaso ditzakezu:**

- ✘ Kuadernatzeko falta zaizkizun zenbakiak eta tapak doan
- ✘ %10eko beherapanak: Aldatz kioldenda, Mahuka jantxidenda, Pauma Haur jantziak, Truke jantxidenda, Usurbil optika denda, Intza ileapaindegia
- ✘ 2.500 pezetatik gorako otordua eginez gero %10eko deskontua Patri, Zumeta eta Antxeta Jatetxeetan.



**Egin zaitetz Noaia!ko bazkide!**



# Estetika Gida !!

**Txaro Artze**  
**Ileapaindegia**

**Buru-azalaren zainketa**

Etxebeste, 3 Telf: 943 37 16 85

**Elexpe**  
**ileapaindegia**

**ESTETIKA ZENTROA**

× **Betileen trukaketa eta permanentea**  
× **Estetika Solariuma Tatuaiak**

Muna Lurra,2 Telf: 37 04 62

**N·I**

**Ileapaindegia**  
**MISTOA**

Telf: 943 36 19 51

- ▷ SOLARIUMA
- ▷ DEPILAZIOA
- ▷ MAKILAJEA
- ▷ MANIKURA

**Agate**

- Depilazioa: menduak argizari beroa eta hotza  
- Depilazio elektrikoa  
- Aurpegi-rako trata-  
- Masaje korporala  
- Makilajea  
- Manikura  
- Pedikura  
- Solariuma  
Telf: 37 05 49

Nagusia, 44 - 20160 Lasarte-Oria



**Ileapaindegia**

**Solariuma**  
**Depilazioa**

Etorri aurretik ordua eskatu!

Nagusia, 2  
Telf: 943 37 28 44

**SAIOA**  
**ILEAPAINDEGIA**

- Betileen tin- taketa

Beherapenak gazteei eta

Kalezar Telf; 943 37 29 52

## Aholkuak



Ines Kamino

**U**daberriaren etorrera dela eta, eskaparate aldaketa ugari ikusten ditugu egunero eta horrekin gure itxura aldatzeko gogoia izan ohi dugu. Ez soilik janzkerari dagokionez, baita ileapaindegi mailan ere, baina aurpegiz aldatu ezin dugunez, orrazkera da gure aukera.

Aurtengo tendentziak 80. hamarkadan oinarrituak daude: orrazkera mugimendu naturalak, desgastatutako kapak, ile luzeak edota estentzio bidez lortzen direnak. Azken honek orrazkera mota ezrbinak lantzeko aukera ematen dute. Gaur-gaurkoz ere ile motza harrotuta eramateko joera asko ugairitu da. Horretarako hainbat produktu daude; besteak beste, argizariak eta aparrak ohikoenak.

Koloreak ere garrantzi handia hartu du. Denboraldi honetan oso ohikoa izango da bizpahiru kolore ilean nahastuta eramatea. kolore naturalen ( marroia, txo-

kolate edota kafe kolorea), sua kolorea duten (kobrea, manadarina...) eta eguzkiaren argitasuna duten kolore doratuak, beixen arteko nahasketaren bitartez begiarentzat atseginak diren kolore natural ugari lortu daitezke. Kolore hauek udaran asko ikusiko dira.

Bestalde, udaberriarekin batera ilearen berritza dator, eta horrekin batera erorketa ere. Oso garrantzitsua da erorketa geldiaraztea, izan ere, oso zaila baita erortzen dena berriz ere berritza. Erorketa sahiestu ahal izateko oso produktu onak daude markatutan, baina erosi aurretik erorketa eragiten duten arrazoiak aztertzea komenigarria da.

Oso garrantzitsua da ilea ondo zaintzea, baina hori norberaren esku dago. Izan arduratsu eta profesional baten eskuetara jo. Zaindu!

Estetikaren inguruan zalantzaren bat argitu nahi baduzu, Noaualra ekarri eta herriko edozein adituk azalduko dizkizu hurrengo aldizkarian. Galdetu erreparorik gabe!